



TALDE LANEAN



Aitor
Mendiluze
Gonzalez



Doinua:
Sorlekua utziz geroz
Neurri berezia

Berto
sortak

Bi kideren artean egin behar zuten taldeko lana. Baina batek egin du lan guztia...
Nola bukatuko ote da bien artekoa?

HAMAIA

Bukatu dut lana eta
ez daukagu **aldatzerik**
baina zure jokaerak
odola sutan **jartzen dit**
ez baitut lortu zati bakar bat
zuk egiteko **hartzerik**
orain ez duzu esperoko ba
bion izena **jartzerik?**

AMAIA

Ez da bion lana beraz
ba ados **honenbestean**
bion izenak jartzeko
ez dut segiko **eskean**
fotokopia bat egigun eta
izenak jartzen **hastean**
zuk jar ezazu batean eta
nik jarriko dut **bestean**.

AMAIA

Zuk lana egiten duzu
hasi eta **berehala**
ezer egiteko ez dut
denborarik izan **hala**
baina esan ez dezazun lanak
nire ezer ez **daukala**
agintzen dizut nire izena
neuk idatziko **dudala**.

HAMAIA

Ez al duzu esan behar
gauza kabalik **sekula?**
Benetan uste al duzu
horrekin aski **duzula?**
Fotokopia bat aurkeztu eta
ondo irtengo **zaizula?**
Irakaslea ohartuko da
kopiatu **didazula**.

HAMAIA

Orain gainera zer zatoz
niri barre **egitera?**
Pentsatu hau izan dela
zuretzat azken **aukera**
zure izenik gabe utziko
dut portadako **papera**
eta pentsatzen hasi zintezke
hemendik nola **atera**.

AMAIA

Nik kopiatu dudala?
Ez zinen zu **izango ba?**
Nola jakin zeinek zeini?
Nola lortu horren **froga?**
Nahi ez baduzu biok uztea
froga honetan **kanpora**
jarri ezazu bion izena
hoberena **izango da**.



Talde lanean ari garela, batzuei inizatiba hartzea kostatzen zaie, eta zain egoten dira, eurei zer aginduko. Beste batzuek, aldiz, dena bikain egon dadin kontrolatzeko beharra sentitzen dute, eta kosta egiten zaie kideei parte hartzen uztea. Guri zer kostatzen zaigu gehien?